


Ekipamenduak



Uharte Zentroak hainbat ekipamendu ditu artisten eskura artea ekoizteko. Espazioei eta ekipamenduei buruzko argibide zehatzak, hemenxte:

<https://www.centrohuarte.es/eu/ekoizpen-zentroa/ekoizpen-laborategiak>

EKIPAMENDUAK ESKURATZEKO MODUA

Hainbat bide dira ekipamenduak eskuratzeko:

1. Egoitzen bitartez

Uharte Zentroko Egoitza batean ari bazara, Uharte Zentroko bizilaguna izanen zara egoitzak iraun bitartean; beraz, ekipamenduak erabil ditzakezu. Badira berariazko deialdiak egoitzetan sartzeko.

Argibideak deialdietan. <https://www.centrohuarte.es/eu/egoitzetarako-deialdiak/>

2. Aldi baterako Egonaldien bitartez

Aldi baterako Egoitza batean ari bazara, aukeratua izan den arte proiektu bat ontzeko. Egonaldiak dirauen bitartean, Uharte Zentroko bizilaguna zara; beraz, ekipamenduak erabil ditzakezu.

Egonaldi bat eskatzeko deialdia. www.centrohuarte.es/eu/egonaldiak-espazio-uzteak/

3. Une jakin bateko Egonaldien bitartez

Une jakin bateko Egonaldi bat eskatzea. Arte-proiektu bat baldin baduzu eta, Uharte Zentroko edozein ekipamendu behar baduzu huraxe gauzatzeko, egoitza bat eska dezakezu; horretarako, kontaiguzu zertan datzan zure proiektua, zer premia dituzun eta zer ekipamendu eskatzen dituzun.

Egonaldi bat eskatzeko deialdia. <https://www.centrohuarte.es/eu/egonaldiak-espazio-uzteak/>

EKIPAMENDUAK AZALTZEKO SAIO TEKNIKOAK

Ekipamenduak ongi erabili ahal izateko, prestakuntza saio bat egin beharra dago nahitaez Huarte Zentroko arduradun teknikoarekin.

Saioak hilean behin eginen dira; hil bakoitzeko 15aren ondoko astelehenean, 16:00etatik 17:30era. Prestakuntza hil bakoitzeko eskarira moldatuko da, hau da, hil horretan eskatu diren ekipoak nola erabili behar diren erakustera.

Halaber, saioetara joan egin daiteke, aurretik egonaldia eskatu gabe. Horretarako, izena eman behar da: www.centrohuarte.es/eu/laborategien-azalpen-teknikoa/

ERABILERA ARAUAK

Arduradun teknikoak

Arduradun teknikoak laborategietako denborak, espazioak eta erabilerak antolatzeaz arduratzen da.

Era berean, aholkuak eta azalpenak emanen ditu ekipamenduen funtzionamenduari buruz. Halaber, lan-prozesuetan sor litezkeen arazoak konpontzen eta zalantzak argitzen lagunduko du. Dena dela, haren lana ez da proiektuak egitea, ez alde teknikoan, ez ekoizpenean.

Materialak ongi zaintzea

Lan espazioak eta ekipamenduak denontzat dira. Ongi erabili, zaindu eta utzi behar dira, hau da, aurkitu diren bezain ongi.

Ekipamenduren batek huts egiten badu, arduradun teknikoari jakinarazi beharko zaio..

Pertsona bakoitza bere gauzen arduraduna da.

Bateriak kargatzea

Gailuetarako behar diren bateriak kargatuak itzuli beharko dira edota kargatzen utziko dira horretarako dagoen puntuan.

Memoria-txartelak

Pertsona bakoitzak bere artxiboak jaitsi eta hustu beharko ditu, gailua itzuli baino lehen.

Disko gogorra

Ez da materialik gordeko ekipamenduetako disko gogorretan. Beraz, pertsona bakoitzak bere biltegiratze-gailuetara pasatu beharko du bere materiala.

KOSTUAK

Gastu suntsikorra behar duten ekipamenduetan, zenbateko bat kobratuko da materialen kostuarengatik. Zenbateko hori aurrez ezarriko da.

ARAUAK ONARTZEA

Ekipamenduak erabiltzen hasi baino lehen, arau guztiak dakartzan agiri bat sinatuko du pertsona bakoitzak, eta horren bidez, arauak betetzeko konpromisoa hartuko du.

